



Iñaki Antigüedad

♦ EHUko IRAKASLEA

Bestelako narratiba politika oso baterako

NORK BERE talaiatik. Ni nagoe-netik behintzat ezina egiten zait gaurko euskal eszena politikoa-ren osoa harrapatzea, hain da zabala! Argia gauza batzuetan, lausoa besteetan, eta dena koadro berean! Are gehiago, tristea beharko luke izan eszena osoa menperatu nahi izateak, koadroa zurrunezia izango baitzen orduan, hauskorra beraz. Mugimenduen bizitasuna behar du eszenak, zalantzak zalantza, koiuntura politikotik harantz eta instituzioetatik honantz. Norabide argiko ibaiak ere txirikordatuak izaten dira gurea bezalako haran zabaletan.

Zelan harrapatu espazio-tarte eta denbora-epe desberdinetan milaka herritar aktibo gauzatzen ari diren zertzeladak? Koadroari bizitasuna emateaz gain markoa bera ere indartuz doazen zertzeladak? Eta biak behar ditugu bizi-gai trantsizio batean, koadroa eta markoa, ohiko politika ez baita politika osoa. Burua honetaz bueltaka nuela irakurri dut Joseba Sarrionandiari egindako elkar-riketa. Eskertzekoa iruditu zait bere narratiba euskal eszena politikoan irudikatzea. Antzeztoki bihurtuta ikusten du, urte askoko antzeztanengatik. Eta jokaleku berrien beharra aipatu, eragile diren antzezle berriekin; gizarte zibila. Antzerkia egiteari utzi eta plaza ireki bihurtu politika, elkarlanerako aukerak zabalduz, eta inertziak, nork bereak, gairitzen joanez. Aldaketek trantsizioa behar dutelako, eta trantsizioek aldeko baldintzak...

Argigarria ere Arnaldo Otegi Sorturen agurrean esana. Hots, gehiegitan gauzak definitzeko

adjektibo asko erabiltzen ditugula, desitxuratzena heltzeraino edo. Kontsigna gutxiago eta argudio gehiago, zioen. Narratiba politiko bera irauli beharra. Eta ez narratiba bakarrik. Argudioetan etengabe sakondu beharra, eta zabaldu. Gogora ekarri zuen presoak orain ez asko abiatutako aldaketarik funtsezkoena politika ulertu eta egiteko moduan datzala. Mentalitatean jarri zuen iraultza; landa politikoari ezin atek ipini. Gure posizioak eta gure disposizioak, zioen, uztartu beharra. Debatea den mahai guztietan egon behar da, zutik bada ere, hori bai, eragiten, barrutik bezala kanpotik ere, koadroa osoa landa hartuta.

Argigarria Otegi esana: gauzak definitzeko adjektibo asko erabiltzen ditugula, desitxuratzena heltzeraino edo

Krisi askoren konbergentzia ematen ari den honetan, egunegun eta lekuz leku, koadroa betetzen doa eta markoa zehaztuz. Instituzioen barrukoa garrantzizkoa izan arren kanpoan ari da gehien koadroa koloreztatzen, Errenteria asko baitira euskal geometria aldakorrean. Zer esanik ez, grisak ere baditu koadroak, halabeharrez, azken finean trantsizioaren seinalea da grisa, ibili beharrekoa. Baina ibili. Harri ibilian goroldiorik ez. ■



• IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Rikardo Gonzalez de Durana



Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak.



XDZ

Euskadiko Kutxan lapurtzeko "beste modu bat dago"

Txomin García, Javier Retegi Agustin Markaide eta MCCko buruzagiek ipini zuten arreta berrogei mila bezerori edo egiteko lapurreta. Zortziehun milioi euro ta piko zer nolako diru meta! Gu esku hutsik gelditu gara haiek patrikak beteta .

Euskaldun hitza jan zutenean babestu zuten gezurra gero Fagor ta Eroski ekarpenez egin zuten iruzurra. Aitona-amonan ta langileoi hain nabarmen ta ziurra Euskadiko Kutxak kendu digu aurreztutako apurra. Lapurrak sari ona jaso du bezero onak egurra.

Kooperatibak sortzeko asmoz on Jose Mari lanean baina orduko izpiritua urratu da azkenean eta boikota piztu diegu oso era zuzenean baina hau ere amaituko da noski egunen batean kendu diguten diru guztia itzultzen digutenean. ■

Egilearen oharra: Kaltetuek hona deitu dezakezue 653 74 52 80.

